

<i>Berdintasun zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Data: 2018-11-08

Tokia: RKE

Ordua: 16:30etik 18:30era

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo Urbiztazu

EH Bildu: Arantza Gutierrez Paz

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera Lana

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Susana Andollo Gonzalez

ELA: Elvira Lemona Díaz

Talde Popularra: Susana de Cos Yañez

Lehendakaritza: Keltse Eiguren Alberdi

Idazkaritza: Bego García Martínez

Roda: Clara Alcicia Lorenzo

Bizarra Leopan elkarte: Alaitz Villate

Bertaratu ez direnak:

Emakumeon Ahotza

Eskuz-esku

Udal Talde Sozialista

Berritzegunea

Gizatiar

Gai zerrenda

- Aurreko akta onestea.
- Euskaraldia. Alaitz Villatek parte hartuko du.
- Azaroaren 25a

- Galde-eskeak

Euskaraldia

Bilkura hastean, Alaitz Villatek hartu du hitza eta Bizarra Lepoan elkartearen izenean Euskaraldiko programaren eta ekimenen inguruko argibideak eman ditu. Era berean, informazioa zabaltzeko eta antolatutako ekintza guztietan parte hartzeko gonbita egin du.

Aurreko akta onartzea

Aho batez onartu da aurreko bilerako akta.

Azaroak 25

Berdintasun teknikariak azaroaren 19an 19:00etan egingo den ekintzaren berri eman du. Ekintza Areetako geltokiaren plazan egitea adostu da. Indarkeriari aurre egin dioten edo oraindik ere aurre egin behar dioten emakumezkoak omentzeko ekintza izango da, indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren emakumezkoek aintzatetsiak izateko duten eskubidearen ingurumarian.

Honako izenburua izango du: "Aulki bat eraildako emakume bakoitzeko". Ikusezina agerian jarritz", eta kontua izango da, alde batetik, indarkeria matxista salatzea hutsik dagoen aulki bat jarritz estatuan eraildako emakume eta neska bakoitzeko; eta bestetik arrazoi desberdinengatik salaketa ez jartzea edo jasaten ari diren indarkeriaren berri ez ematea erabakitzen duten emakumeak ikusaraztea. Ekintza sinboliko baten bidez (Kancaneo antzezlanarekin elkarlanean) adierazpen/salaketa bat irakurriko da eta, ondoren, inprobisazio performance bat izango da bertaratutako ikus-entzuleekin.

Testuari dagokionez, berdintasun atalak egin eta alde zuzenetik kontseiluari bidali zion; hala Bilgune Feministak honakoa proposatzen du: azaroaren 19an adin txikikoen abusuak prebenitzeko nazioarteko eguna ospatzen denez gero, irakurketan egun horri buruzko aipamena txertatzea. Alderdi Popular, Ciudadanos eta EAJko ordezkariak adierazi dute hori aipatzeak ekintzaren xedea desitxura desitxura dezakeela. Bien bitartean, EH Bilduk, Bilgune Feministak eta Guk taldeak proposatu dute egun horri buruzko aipamena egitea adierazpenean. Azkenik, ekintzaren irakurketan azaroaren 19ko eguneko aipamena txertatzea adostu da.

Bilgune Feministako ordezkariak ere proposatu du sistema judizialaren mehatxuari aipamena egitea; hori aho batez onartu da.

Azaroaren 25eko kanpainaren gainerako ekintzak honela laburtzen dira:

Aurten Beldur Barik programa aurrera eramango da ikastetxeetan nerabeen arteko tratatu onari buruzko saio parte-hartzaileetako formatuan, betiere estrategia kohezitzaile batetik (genero ikuspegia eta zeharkakotasuna txertatuz), eraso (hetero) sexistak lantzeko eta prebenitzeko.

Lan eta gogoeta espazioa izango da, eta arreta berezia jarriko da eguneroko bizitzako jarrera heterosexista eta matxistetan, ikasgeletako esperientzietatik landuz.

Parte hartuko duten ikastetxeak honakoak dira:

- Fadura: 12 talde
- Stma. Trinidad: 2 talde
- Azkorri: 2 talde
- San Nikolas: 2 talde

Urtero bezala, totemak, pankartak eta puntu moreak jarriko dira; pankartak udal eraikinetan eta puntu moreak establezimendu eta ostalaritzan.

Adierazpen instituzionalari dagokionez, ez dago ekarpenik. Batzuan onartuko da azaroaren 23an eta horren berri emango da hilaren 28ko bilkuran.

Galde-eskeak

Bilgune feministak Getxoko mugimendu feministak A25aren inguruan antolatutako ekintzen berri eman du. Antzerkia Romon, hilaren 23an, ostirala, eta elkarretaratzea Algortan, hilaren 24 eta 25ean.

Bilgune Feministak proposatu du, era berean, gizonezkoei galderak egitea eta aktibatzea Tomoris antzerkiaren bidez.

Hurrengo kontseiluaren data gisa abenduaren 13a proposatu da.